

ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, sustapen-helburuetarako nazio-mailako ZOZKETA bat egingo du www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak orrialdean, 12 urteko edo gehiagoko bezeroen artean, betiere 2023ko otsailaren 15etik martxoaren 31ra bitartean (biak barne) SUPER BAT haurrentzako aurrezki-kontuko puntuak LABORAL Kutxaren katalogo berriko produkturen batekin trukatzeko badituzte, 5. atalean, «Parte-hartzaileak» izenekoan, jasotakoaren arabera. HOGEITA BOST (25) Samsung Galaxy A03s telefono mugikor zozkatuko dira..

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa hau 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa eta borondatezkoa izango da. Hortaz, saria eskuratu ahal izateko, ez da kuota edo kopuru gehigarri ordaindu behar.

3.- Zozketaren xedea eta prozedur

Zozketa bat (1) egingo da eta hogeita bost (25) Samsung Galaxy A03s telefono mugikor zozkatuko dira, 2023ko apirilaren 1a baino lehen puntuak LABORAL Kutxaren katalogo berriko produkturen batekin trukatzeko dituzten 12 urteko edo gehiagoko titularren artean. Irabazleek dagokien LABORAL Kutxaren bulego gestorean jasoko dute saria.

Zozketan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dituzte erabiltzaileek:

- SUPER BAT haurrentzako aurrezki-kontuaren titularren legezko ordezkariak diren pertsona fisikoek hartuko dute parte zozketan, betiere kanpainako mezu elektronikoa jasotzen badute eta puntuak LABORAL Kutxaren katalogo berriko produkturen batekin trukatzeko badituzte sustapenaren egunetan.
- Zozketaren lege-oinarrietan eta LABORAL Kutxaren bulegoetan nahiz www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak orrialdean eskuragarri dagoen prozedurari jarraitzea.
- Irabazleak saria onartzen badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren legezko tutoreen izen-abizenak argitaratzeko.

4.- Iraupena eta eremua

Jarduera hau Espainiako lurraldean gauzatuko da.

Zozketan parte hartzeko epea 2023ko otsailaren 15etik martxoaren 31ra bitartekoa izango da, biak barne.

5.- Parte-hartzaileak

Honako hauek hartu ahal izango dute parte zozketan:

- SUPER BAT haurrentzako aurrezki-kontuaren 12 urteko edo gehiagoko titularren legezko ordezkariak diren pertsona fisikoek, betiere kanpainako mezu elektronikoa jasotzen badute eta puntuak SUPER BAT katalogo berriko produkturen batekin trukatzeko badute 2023ko apirilaren 1a baino lehen, Telebankaren bidez edo bulego batean.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu:

- LABORAL Kutxako langileek, ezta taldeko, partaidetzapeko eta antzeko sozietateetako langileek eta kanpainarekin zuzeneko lotura duten pertsonak ere.



Egoera hauetako batean dauden LABORAL Kutxaren bezeroek ez dute parte hartzeko edo saria irabazteko eskubiderik izango:

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo beste edozein egoera irregularretan daudenek zozketa indarrean dagoen bitartean, zozketa egiten den egunean edo saria emateko unean.
- LABORAL Kutxaren iritziz iruzurrez jokatzeko dutenek zozketan.

6.- Irabazlea(k) eta ordezkokoak aukeratzea eta saria jakinaraztea eta ematea

3. atalean zehaztutako sariaren zozketa 2023ko apirilaren 17an egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez.

Bidezko arrazoiren batengatik egun horretan ezin bada zozketa egin, hurrengo egun baliodunean egingo da. Saria onartzen duen ala ez jakinarazi beharko dio saridunak LABORAL Kutxari, telefonoz, posta elektronikoz edo bulego batean sinatutako hartu-agiriaren bidez, saria argitaratzen edo jakinarazten den datatik gehienez egun natural bateko (1) epean. Datu-basean dituen bezeroaren datuak erabiliko ditu Entitateak.

Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio, edo berarekin harremanetan jartzerik ez badago zozketa egin eta 3 egun balioduneko epean, ez du inolako ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Saridunak sariari uko egiten badio, berarekin harremanetan jartzerik ez badago zozketa egin eta 3 egun balioduneko epean, zozketaren baldintzak betetzen ez baditu edo lehenago azaldu den baimena ematen ez badu, saria ordezkoen zerrendako lehen postuan dagoenari esleituko zaio, zozketan ateratako ordena errespetatuz. Gehienez, bost (5) ordezko izendatuko dira. Saridunak ezingo du sari horren ordezkari beste bat eskatu.

Sariduna saria jaso aurretik hiltzen bada, helburu horrekin berariaz aukeratutako ordezkari emango zaio.

7.- Sariaren zerga-sistema

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. LABORAL Kutxak ordainduko du sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipearen zenbatekoa.

Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

8.- Iruzkina edo iritzia argitaratze

Ez da onartuko iruzkin edo iritzirik, horien edukia desegokizat jotzen bada, iraingarriak, laidogarriak edo diskriminatzaileak badira, edo hirugarrenen eskubideak urra baditzakete. Era berean, ez da onartuko pertsona baten aurkako iruzkinik, baldin eta ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen badu. LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, parte-hartzaileek zozketan egiten dituzten iruzkinak beste parte-hartzaile batzuen sentsibilitatea mintzearen ondoriozko kalteengatik.

9.- Erreserbak eta mugak

Iruzurra egin dela ulertuko da kasu hauetan, baina ez horietan bakarrik: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari gehiegizko kontsulta-kopurua egiten bazaio eta itxuraz gehiegizkoak edo asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira.

Zozketan zehar aipatutako egoeraren bat egiaztatzen bada, parte-hartzailea zozketatik kanpo geratuko da zuzenean, eta, saria eman bazaio, galdu egingo du.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, saridunak emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du inolako erantzukizunik izango, saria ematean edo erabiltzean gertatzen diren gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gertatzen diren atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.

Pertsonaren batek zozketaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurka ekintza judizialak abiarazteko.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, zozketan parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi batean erabiltzerik ez egotearen edo haien funtzionamendua eten izanaren, erabiltzaileek horiek iruzurrez erabiltzearen eta, bereziki baina ez eskusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean izandako akatsen ondorioz gertatzen diren kalte-galerengatik.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren xede onerako aldaketak egiteko, horretarako bidezko arrazoiak daudenean edo zozketa oinarri hauetan jasotzen den moduan burutzea galarazten duten



ezinbesteko arrazoiak daudenean.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita oinarri hauek interpretatzeko ere.

Halaber, enpresa antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko, aipatutako kasuetako bat gertatzen bada edo saria baliatzean kalte-galeraren bat suertatzen bada.

10.- Datuen babesa

Datuen tratamenduaz LABORAL Kutxa arduratuko da (IFZ: F-75076935; egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa).

Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da badakiela LABORAL Kutxak tratatu egingo dituela lehiaketa honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak, batetik zozketako parte-hartzea tramitzatzeko, bestetik irabazlea izanez gero sariaren berri emateko eta, azkenik, saridunaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratia, telebistaren, Interneten eta abarren bidez), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango. Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezereztzeko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango ditu parte-hartzaileak. Horretarako, bere nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiri baten bidez) protecciondatos@laboralkutxa.com helbide elektronikora idatzi beharko du, edo, bestela, ohiko postaren bidez, helbide honetara jo: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa.

Puede consultar la Política de Protección de Datos de Clientes en

<https://www.laboralkutxa.com/es/proteccion-de-datos>.

11.- Oinarriak onartzea

Zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, zozketatik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek www.laboralkutxa.eus webgunean kontsulta daitezke.

12.- Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor litezkeen erreklamazioak edo desadostasunak ebazteko.

